

Prentsa oharra

Nota de prensa



AMARA BERRIKO SOLDADUEN PLAZA HOBETZEN HASI DIRA

Amara Berriko Soldaduen Plazako bizilagunekin adostutako hobekuntza batzuk hasiko dira astelehen honetan.

Plazatik, Isabel II.a eta Madril hiribidea lotzen dituen egurrezko bide bat iragaiten da, konpondu beharreko hainbat kalte dituen.

Marisol Garmendia bozeramaile sozialistak adierazi duenez, "Auzokoen eskaerei erantzun diegu eta bideko egurrezko tarima osorik ordezkatzeari ekingo diogu. Etorkizunean kalterik gerta ez dadin, pasealekuko zur teknologikoaren oinarrian dauden trenkadak elkartuko dira, eta horrela sendotasun eta iraunkortasun handiagoa lortuko da".

Kentzen den zura berriro erabiliko da plazako banku eta elementuetan ikusten diren kalteak behar bezala estaltzeko, gaur egun adreiluak agerian baitaude. Gainerako zura biltegira eramango da, beste obra batzuetan berrerabiltzeko.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Plazara sartzeko eskailera txikiak ere konponduko dira. Esku-hartze hori aprobetxatuz, plazan dauden haur-jolasak birmargotuko dira eta ingurunea hobetuko da.

Lanak 4 hilabetez luzatuko dira eta 205.876 euroko kostua izango du.